



Co-funded by the LIFE programme
Environment and Resource Efficiency



LEMA

Toki-aginteritzentzako itsas zabor
bilketa eta kudeaketa adimentsua

NEWSLETTER



EDITORIALA

Kaixo guztioi,

Life LEMAREN lehenengo buletina aurkezten dizuegu. Life LEMA proiektua Europako Batzordeak Life Programaren bitartez batera finantzatzen du eta 2016ko irailean hasi eta 3 urte iraungo ditu. Buletin honen bidez, gure asmoa da gure proiektuaren bilakaeraren berri ematea, Life LEMA ekimenaren inguruan gertatzen den ororen parte izan zaitezten, hasiera-hasieratik eta 2019ra bitarte. Horretarako, urtean bi buletin argitaratuko ditugu eta, gure webgunearekin batera www.lifelema.eu zuekin partekatu ahal izango dugu Life LEMA ekimenak egiten dituen jarduerak guztien garapena. Guk geuk antolatu edo parte hartzen dugun ekitaldi guztien berri emango dizuegu eta, horrez gain, gure lan-taldea gehiago ezagutzeko aukera izango duzue. Horrez gain, gure webgunetik deskarga dezakezuen buletin bakoitzean, elkarrizketa labur bat argitaratuko dugu, Life LEMA ekimenarekin lotutako hainbat pertsona eta erakunde hobeto ezagut ditzazuen.

Lan-taldeak gure proiektua gertutik ezagutzeko gonbita luzatzen dizue, eta gure ateak zabalik dituzue, gurekin harremanetan nahi duzuenorok jarri eta gure proiektuaren zati aktiboa izan zaitezten.

Ongi etorri proiektura,



PROIEKTUA

Europako Ingurumen Agentziaren arabera (EEA ingelesez), urtean 10 milioi tona itsas-zabor isurtzen dira munduko itsaso eta ozeanoetara. Bizkaiko Golkoa ez da salbuespena. Itsasontzi, itsasertz edo ibaiertzen bitartez iristen da zaborra eta gure itsas-azalean edo itsas azpian pilatzen da. Horrek ondorio larriak eragiten ditu ingurumenean, baita maila ekonomikoan, itsas-segurtasunean eta osasunean ere.

Life LEMA proiektuaren helburua da gure itsasoetan flotatzen ari den itsas-zabor hori hauteman eta biltzeko sistema bideragarri bat lortzea eta, horretarako, tokiko agintariak eta itsasertzeko komunitateak esku hartzea lortu nahi du. Beste helburu bat du gizartea arazo larri honen inguruan sentsibilizatzea eta arazoaren ondorioak ahalik eta gehien murriztea.

Life LEMA proiektua garatzen duen partzuergoa gaia aspaldidanik ezagutzen duten sei entitatek osatzen dute, eta entitate bakoitzak ikuspuntu batetik garatzen du gaia. Horien arteko ahaleginak Bizkaiko Golkoko itsasertzaren tokiko komunitatearen ekintza koordinatua susta dezake. Kosta Garbia sindikatu mistoak ibilbide zabala du Aturri eta Bidasoa ibaien estuarioen artean flotatzen dagoen itsas-zaborra biltzen, horretarako berariaz prestatutako arrantza-ontzia erabiltzen du.



Miarritzeko Udalak eta Rivage Pro Tech (Suez taldea) tokiko enpresak ere itsas-zaborra biltzen dute, udalerriko hondartzetan, eta horretarako bestelako berariazko ontziak erabiltzen dituzte. AZTI itsas-ikerketarako aplikatua espezializatutako zentro teknologikoa da, gure kostaldeetako itsasoa ikertzen 30 urte baino gehiagoko ibilbidea du eta bereziki kezkatzen da gure itsas-espezien bilakaeraz eta arrantza-sektorearen egoeraz. Surfrider Foundation Europe irabazi-asmorik gabeko erakundea da eta itsasoa, olatuak eta hondartzak babestea du helburu. Arazoaren inguruko ezagutza zabala du eta herritarren zientziarako kanpainen bitartez datu-baseak osatzen laguntzen du. Eta, azkenik, Gipuzkoako

Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak ekarpen handiak egiten ditu: hondakinen kudeaketa integralerako politika eta ekonomia zirkularreranzko trantsizioan esperientzia du, iraunkortasunerantz egitearen garrantzia lantzen du -klima-aldaketaren aurkako borrokarako tresna gisa, eta, horretarako, Gipuzkoako hondartzak garbitzen esperientzia du-, hondakinen inguruko ezagutza du eta arazo hau prebenitu eta arintzeko kostaldeko zein barnealdeko tokiko erakundeak koordinatzeko gaitasuna du. Guztion artean proiektu berri hau aurrera eramatea lortu behar dugu.



Europar Batasunari deigarri gertatu zaio eta interesa erakutsi du, Europako itsas-estrategiarako irizpideak lortzeko eta jokabide-eredu horiek Europar Batasun osoan ezartzeko. Laburbilduz, beraz, pasa den urteko irailean abiarazitako proiektu honen helburua da flotatzen dagoen itsas-zaborra behatu, aurreikusi eta hautemateko sistema bat sortzea, zabor hori jasotzeko mota anitzetako ontziteria txiki bat prestatzea, kostaldeko hainbat puntutan zaborra geldiarazi eta biltzeko hesiak jartzea, ondoren horren hondakinak aztertu eta materialak birziklatzeko duen ahalmena aztertzeke. Azkenik, herritarrak sentsibilizatzeko prozesua erakustea eta hondakinen azken jomuga kudeatzea ere helburu ditu. Horrez gain, proiektuan erabiltzeko ontzien energia-eraginkortasuna hobetzea ere aurreikusten da, flotatzen dagoen itsas-zaborrari buruzko datu-basea sortzea, zabor hori sailkatzeko egungo protokolei irizpide berriak eskaintzea, hainbat gailu teknologiko probatzea (dronak, radarrak, kamerak, etab.) eta zabor-pilaketak hautematen laguntzeko tresna informatiko bat eskuratzea. Proiektuak, halaber, arrantza-sektoreak esku hartzea ere nahi du, sektore horrek adierazi baitu laguntzeko interesa, beren jarduera dibertsifikatzeko aukera emango baitu eta sektorea geldituta dagoen hilabeteetarako

irabazi gehigarriak lortzeko iturri izan baitaiteke. Orobat, itsas-agintariak laguntzen ari dira behar diren baimenen kudeaketa administratiboaren alderdiak konpontzen. Horren guztiaren ondorioz, kudeaketa-eredu integratu eta iraunkorra lortuko da, ondoren tokiko agintariak balioztatuko dute ereduaren bideragarritasuna eta jarraitutasuna bermatzeko, eta kostaldeko beste komunitateetan ere ezar daitekeen ikusteko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua da partzuergoaren entitate koordinatzailea eta proiektuaren buru Europar Batasunari begira. Horren helburuak dira, hasiera batean, Gipuzkoako hondartzen kudeaketa iraunkorrerako ikuspegi integrala sustatzea, baita ekonomia zirkularra sustatzea ere, negozio-eredu berrien bidez. Bide horretan, hondakina baliabide bihurtuko da eta birziklapena enplegu berde-iturri, kasu honetan, itsasoari estuki lotutako sektore ekonomikoarentzat. Maila sakonagoan, itsasertzeko tokiko eragileen ekintza koordinatua sustatu nahi da (zuzentzailea eta prebentiboa), baita barnealdeko eragileena ere, maiz gure begietatik urrun garatzen den arazoaz jabetzeko. Entitate eta erakunde askok, baita urrunekoek ere, adierazi dute proiektu honekiko interesa eta itxaropen handia piztu du. Horrek guztiak arrakastazko eredu bat lortzeko indarra ematen digu. Azken batean, gure itsasoa zaintzen ikasteko eredu bat lortzeko indarra.

“Life LEMA proiektuaren helburua da gure itsasoetan flotatzen ari den itsas-zabor hori hauteman eta biltzeko sistema bideragarri bat lortzea eta, horretarako, tokiko agintariak eta itsasertzeko komunitateek esku hartzea lortu nahi du.”

BULETINA

maiatzak
13-14

LIFE LEMA TALDEAK ZURRIOLAN OSPATUKO DU LIFE PROGRAMAREN URTEURRENA, LET'S CLEAN-UP EUROPE! EKIMENAREN BAITAN

Life LEMA taldeak donostiar guztiei egiten die gonbita, jarduera ireki hauen bidez bi egunotan gure proiektua gertutik ezagutzeko. Maiatzaren 13an informazio-jardunaldia egingo dugu, herritarrei Life LEMA ekimeneko bazkideak nortzuk garen azaltzeko, baita zer egiten dugun eta Europar Batasuneko LIFE programan parte hartzeak zer esan nahi duen azaltzeko ere. Hurrengo egunean, maiatzaren 14an, Let's Clean Up Europe! ekimenarekin bat egin eta Donostiako Zurriolako hondartzan itsas-zaborra bildu eta ezaugarriak aztertuko ditugu. Etor zaitez gurekin! Ekitaldian parte hartzeko idatzi hona: lifelema@gmail.com

- Ekitaldi irekia
- Donostia Gipuzkoa (Espainia)
- <https://goo.gl/maps/g6ikoJ9aBsH>

maiatzak
24-25

IZENBURUA: KOSTA ETA PORTU INGENIARITZARI BURUZKO ESPAINIAKO XV. JARDUNALDIAK

Life LEMako lan-taldeak Alacanten ospatuko diren Kosta eta Portu Ingeniaritzari buruzko Espainiako XV. Jardunaldietan parte hartuko du maiatzaren 24 eta 25ean. Edizio honetan, gai berriak izango ditu, hala nola, Itsas Espazioaren Plangintza eta Europako Itsas Estrategiak. Gai horiei dagokienez, Life lan-taldeak proiektua azalduko du eta Gipuzkoa eta Lapurdiko kostaldeetara iristen den itsas-zaborrari buruzko datu historikoak aurkeztuko ditu. Kosta eta Portu Ingeniaritzari buruzko Espainiako XV. Jardunaldiak topaketa zientifiko-politikoak dira eta bertan biltzen dira nazio zein nazioarteko adituak. Interes handiko gaiak jorratzen dituzte, besteak beste, itsasertzaren kudeaketari eta babesari lotutakoak. Informazio gehiago: <http://costasypuertos2017.com/>

- Beharrezkoa da kongresua baino lehen izena ematea
- Alacant (Espainia)
- <https://goo.gl/maps/cjExd2q6uMq>

irailak
27-29a

LEMA ADITU-SAREAREN 1. BATZARRA

Irailaren 27, 28 eta 29an Miarritzen egingo da Life LEMA proiektuaren hirugarren bilera teknikoa. Egun horietan zehar, bazkide guztiak hartuko dute parte eta Life LEMako adituak bilduko dituen lehenengo jardunaldia egingo da. Sare horretan Frantzia eta Espainiako adituek parte hartuko dute, lan-taldeen antolatuta, eta Europako politiken alorrean irtenbideak proposatzea eta lurralde mailan itsas-zaborraren kudeaketa optimizatzekeo jarduna izango dituzte helburu.

- Gonbidapen bidezko ekitaldia
- Miarritzeko Udala (Frantzia)
- <https://goo.gl/maps/5bmcPtW9U9R2>



ELKARRIZKETA



JOSÉ IGNACIO ASENSIO BAZTERRA

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Diputatua
Gipuzkoako Foru Aldundia

Zure ustez, zer dela eta lortu du Life LEMA proiektuak halako interesa piztea, besteak beste, gizartean, komunikabideetan eta politikagintzan?

Gizarteak gero eta argiago ikusten duelako gizakiok planetan dugun eragina. Klima-aldaketak azaleratu du gure jardueren eragin zuzena dutela airearen kalitatean eta horrek eragindako ondorioak gero eta nabariagoak direla. Ozeanoa da, erabat eskura ez dugunez, ondorio horietatik at gelditzen zela uste genuen espazio gutxitako bat. Orain, berriz, datuek kontrakoa esaten digute, eta gero eta argiago

dugu, ozeanoa zaindu ezean, hobi bihur daitekeela.

Nola zaindu dezakegu itsasoa?

Hein handi batean, lurretik eragin dezakegu. Life LEMA proiektuak Bizkaiko Golkoan flotatzen dagoen zaborra zein den eta non dagoen aztertzen du eta zabor hori biltzeko irteerak antolatzen ditu, tokiko kostalde-komunitate eta bertako erakundeentzat bideragarri izango den bilketa-sistema diseinatzeko. Aitzitik, proiektuaren helburua gaiaren inguruan sentsibilizatzea eta prebentziorako plan bat

abiaraztea da, zaborrak itsasoan amai ez dezan, izan itsas-azalean edo itsas azpiko substratuekin nahastuta, izan plankton eta animalietan, eta horien bidez, kate trofikoan.

Zergatik esku hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak gai honetan?

Eskumenak izan ala ez, guztion ardura da guztion ondare den horren inguruan garatzen den arazo kolektiboari erantzuna ematea. Itsasaldearekin lotutako gaiak Eusko Jaurlaritzaren eta Estatuaren eskumenak badira ere -eta Foru Aldundiak agindu horiek bete behar ditu-, Europar Batasunak tokiko gobernuei dei egin die ingurumen-arazoei irtenbidea ematen lagun dezaten, lur-planeta mailako ondorioak dituztenean batez ere. Beharrezkoa da guztiok -erakundeek, enpresek, elkarrekin, herritarrek orokorrean, komunikabideek, etab.- gure ekintzak bat egitea, elkar laguntzea, koordinatuta, gizakiok guk eragindako ondorioak geldiarazi eta horiei buelta ematea lortu nahi badugu. Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak Gipuzkoako hondartzetako garbiketa eta egoera orokorraren gainean esperientzia du -eta bertara iristen da itsas-zabor asko-. Hondakinen inguruko ezagutza du, udal-arazoetan erantzukizun subsidiarioa du,

lidergo eta koordinaziorako gaitasuna, ezagutza teknikoa eta giza baliabide eta baliabide ekonomikoak.

Zer ikasiko dugu esperientzia honi esker?

Nik espero dut, hondakin antropikoak sortu eta kudeatzeko arazoaren inguruko ezagutzan sakondu eta behar bezalako kudeaketa egiteko tresna zentzuzkoa garatzeaz gain, esperientzia honek talde kolaboratzaile bat sortzen laguntzea, proiektuaren beraren garapen-aldiaz harago irauteko. Life LEMA Iparralde eta Hegoaldeko erakunde eta entitateek elkarlanean garatutako proiektua da. Azken batean, Bizkaiko Golko itsasertzeko komunitateok itsasoaren eta itsasertzaren arazoaren aurrean elkarrekin jarduten ikastea espero dut.

LAN TALDEA



FÉLIX ASENSIO
Ingurumeneko Zuzendari Nagusia
Gipuzkoako Foru Aldundia



BEATRIZ MARTICORENA
Ingurumeneko Zerbitzu burua
Gipuzkoako Foru Aldundia



MÓNICA PEDREIRA
Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako saileko
aholkularia
Gipuzkoako Foru Aldundia



JARRAITU



@Lifelema




@Life_LEMA



@lifelema



www.lifelema.eu





Co-funded by the LIFE programme
Environment and Resource Efficiency



LEMA

Toki-aginteritzentzako itsas zabor
bilketa eta kudeaketa adimentsua

NEWSLETTER
www.lifelema.eu

